Después de comer, miramos el reloj y decidimos escalar alguna de las "Y", la que tenga menos cordadas. Al ir en horario de tarde, sólo está ocupada la variante derecha, por lo que escaltaremos los 250 m de la "Y de gauche" en cinco largos. Los árboles que hay a ambos lados de la cascada permiten montar reuniones al gusto, los muros de hielo son entretenidos, pero no pasan del grado 3+ y la bajada se hace por un cómodo sendero sin necesidad de rapelar la vía. Muy contentos con nuestro primer día de escalada, antes de volver al calor de la fortaleza, decidimos pasar por el pie de vía de la gran clásica del valle: "Les Formes du Chaos". Un fuerte caudal de agua ruge de manera incesante bajo las toneladas de hielo que forman los primeros 60 metros de la cascada. Es el objetivo para mañana. Nos iremos a dormir con ese sonido en la cabeza y la incertidumbre de no saber si podremos encaramarnos a ella o no.

Hemos madrugado bastante más que el primer día y, aun así, ya hay una cordada por delante de nosotros. A estas horas de la mañana, el monstruo de hielo ya no ruge como ayer y parece que no le importa que le

vayamos haciendo cosquillas con los piolets y las puntas de los crampones. Hay zonas huecas por el centro, por las que corre algo de caudal, nada que ver con lo que vimos ayer, el riesgo es asumible. Por salir de allí cuanto antes, escalamos en un solo largo y pegados a la izquierda los 60 m del primer gran muro. Más arriba la cascada se estrecha y se retuerce en formas imposibles. Una corta panza de hielo nos lleva a una preciosa cueva donde montaremos la segunda reunión, justo antes del ancho muro del tercer largo. Por encima continúa la fiesta del hielo y el ambiente grandioso de esta gran clásica del valle. Ya hemos perdido de vista la cordada de delante y no hay atascos detrás de nosotros. Hemos venido en la segunda quincena de febrero y parece que va quedando atrás la temporada alta, que llega a masificar las vías en el mes de enero.

Un fuerte caudal de agua ruge de manera incesante bajo las toneladas de hielo que forman los primeros 60 metros de la cascada

Las "Formas del Chaos" se toman un respiro en el cuarto largo, tras un resalte de hielo, se llega a unas anchas campas de nieve con un posible escape andando a mano derecha. En el quinto largo vuelve la acción. La campana de hielo se partió hace unos días y no queda más que una poza de agua esperando a que remoжем el culo. Por encima, los restos de la parte superior de la campana, que no es más que una pequeña bóveda de hielo pegada a la roca. En el centro, un continuo chorro de agua nos recuerda que queda poco para el mes de marzo. Mientras llegan Paco y Patri, decido probar suerte. Tras un gancho de piolet en la roca y "acerando" (usar los propios seguros para progresar) de tres tornillos que coloco en la bóveda de hielo, consigo pasar el tramo delicado. Delante, un bonito tubo vertical de hielo cristal que escalo con una bota completamente llena de agua. Y más arriba, un último largo de hielo vertical, para poner fin a una de las cascadas más bonitas y repetidas del valle.

Al día siguiente nos trasladamos a la zona de La Grave, al norte de Briançon. Aprovecharemos para darnos un día de "descanso activo" subiendo con esquís al Pic Blanc du Galibier y por la tarde, no sin ciertas dificultades, encontramos un alojamiento en Les Fréaux, justo debajo de la cascada que queremos escalar.

Dentro de las vías de grado medio-bajo (esas que no pasan del grado 4), "La Colère du Ciel" es una de las clásicas de La Grave. Se trata de una cascada de casi 400 m de longitud, por un terreno algo más salvaje que en la zona de Ceillac. Enlaza muros de hielo con largas campas de nieve, con un tramo clave en los largos cuarto y quinto. Esas dos secciones de hielo casi vertical y poco picado, hizo que nos pareciera más duro el grado 3+ de "La Colère du Ciel" que el grado 4 de la repetidísima "Les Formes du Chaos".

Tras cinco días seguidos de actividad, cuatro cascadas de hielo, una escalada en roca y una esquiada, el último cartucho lo usaremos en "Le Pylône". Una corta pero intensa cascada situada justo por debajo de una de las pilonas del teleférico de La Grave. 60 metros de hielo bastante vertical, con una reunión intermedia que suelen usar los guías de la zona para dar sus cursillos de iniciación. Se puede escalar por varias líneas dependiendo de la dificultad que busquemos (desde el 3+ hasta el 4+), la aproximación es bastante cómoda y el descenso se hace en un solo rápel desde los árboles que hay al final de la cascada.

Hasta aquí lo que dio de sí nuestra semana en Ecrins, disfrutada junto a Eneko, Paco y Patri. Las posibilidades en la zona son enormes. Además de Ceillac y La Grave, los valles de Fournel y Freissinières esconden grandes líneas de grado medio-alto. También hay variedad y cantidad de cascadas en el Vallon du Diable, y en Cervières, en Les Orres e incluso junto a la estación de esquí de Alpe d'Huez. Para los más perezosos o como primera toma de contacto con el hielo, tanto en L'Argentière-la-Bessée como en Aiguilles (Queyras) se instalan unas cascadas de hielo artificial que están operativas durante los meses más fríos del invierno.



Escalando el primer largo de "La Colère du Ciel", con vistas hacia el pueblo de Les Fréaux y la cascada del Saut de la Pucelle · FOTO: ENEKO PASCUAL

MONTE ROSA ETA MONT BLANC MENDIKO ESKIEKIN

Eboluzio naturalaren bidez heldu zen mendiko eskia gure bizitzetara. Gerora pasio bihurtuko zen hurrengo pausu logikoa izan zen eta... hura heldu zen momentutik neguak beste modu batean bizi izan ditugu, mendiaz gozatzeko aukera sorta berria gure aurrean zabalduz.

ARGAZKIAK



Endika Larrazabal
(Amurrio, 1989)

TESTUA



Ander Goti
(Amurrio, 1988)

TESTUA



Amets Arrizabalaga
(Ondarroa, 1984)

Mendiko Lagunak mendi taldeko batzordekidea. Txikitatik argazkilaritza eta mendizaletasunarekin lotura estua izan du. Bere argazkietan bizitako sentimenduak transmitzea du helburu. Mendiko eskiaz, eskaladaz zein alpinismoaz gozatzeko aukera izan du Pirinioetan eta Alpeetan.

Mendiko Lagunak mendi taldeko batzordekidea. Irakaslea lanbidez, gazetarik natura arloko kiro ezberdinekin harrimena izan du. Eskalada, mendiko eskia, arroila eta bizikleta bidaia zalea, besteak beste. Bere zaletasunak Pirinioetan, Alpeetan eta Hego Amerikan burutzeko aukera izan du.

Irakaslea ofizioz. Itsasoari begira hezia; igeriketa, itsas-kayaka, surfa eta azken urteetan batez ere belaontzian nabigatzea pasio duena. Mendien oinez, eskalatu, bizikletaz zein eskien gainean arnasa hartzea maite duen abenturazalea.



Hainbat urtez mendizale eta eskiatzaile bezala hasten ikusi gaituzten Castro Valnera, Aloña eta Pirinioetako bailara ezberdinak zeharkatu eta gero, Alpeetako mendiko eskiko ibilbideak tartekatzen hasi ziren gure elkarrizketetan eta pentsamenduetan.

2015ean, Monte Rosa edo "Spaghetti tour"ean jarri genituen begiradak, eta horrek eskaintzen zituen aukerak aztertuta, Dufourspitze gailurrarekin borobiltzea polita izan zitekeela imajinatzen hasi ginen. Pentsamendu horrekin batera, gertuko beste mendiguneeen izenak aipatzen genituen eta horrela sortu zen hainbeste motibatu gintuen ideia: Aosta harana inguratzen duten hiru mendigune esanguru-

ratsuenetan eskiatzea: Grand Paradiso, Monte Rosa eta Mont Blanc, eta, zergatik ez, haien puntu gorenetara heltzea.

Aste Santuko oporrak aukeratu genituen gure planari ekiteko, baina, urte hartan Alpeetako eguraldiaren iragarpen txarra zela eta, Pirinioetako Carros de Foc ibilbidea egiten amaitu genuen Ondarroako la-

gunekin batera. Ibilbide hori egiteaz gain, buruan sartuta genituen beste hainbat gailur kateatzea lortu genuen egun gutxitan.

Urtebete geroago, egoera berdinean geunden: ekaitz indartsuek Alpeak eta Pirinioak hartu zituzten. Beste behin ere, gure planak trakestu ziren eta inprobisatzeko beharrea ikusi ginen. Hegoalderantz jo eta



Kolosoen artean eskiatzen

Poqueira aterpea oinarrizko kanpamendua hartuta, Veletan eta Mulhacenen zehar eski egun itzelez gozatu ahal izan genuen.

Azkenik, hirugarren saiakeran dattek eta eguraldiaren iragarpen egokiak bat egin zuten eta gure bidaiari hasiera eman ahal izan genion.

MONTE ROSAKO TOURRA 1. ETAPA

Cervinia izan zen ibilbidea hasteko hautatu genuen lekua. Lau egunerako motxilak ahalik eta zehaztasun gehienez prestatu genituen, pisua gakoa izango baitzen hurrengo egunetan. Konturatu orduko Plateau Rosara igoko gintuen kabinan sartuta ginen. Elkarri begira barre urduriak ateratzen zitzaizkigun eta hainbat zalantza gure buruan dantzan: nolako elur baldintzak topatuko genituen? Nola eragingo zigun altuerak eskiatzeko orduan...? Gure lehenengo esperientzia izango zen lau mila metrotan eskiak jantzita.

Gure lehenengo esperientzia izango zen lau mila metrotan eskiak jantzita

Bideari ekin genion heinean inguratzen gintuen lainoa desagertzen hasi zen. Momentu hura ikuskizun bihurtu zen gure inguruan hainbat mendi ezagun agertzen zitzaizkigun bitartean. Iparraldean, Matterhorn izugarria altxatzen zen; mendebaldean, aldiz, gure ibilbidearen zati handi bat ikusteko gai ginen: Breithorn, Pollux eta Castor mendiek osatzen duten mendilerroa.

Altueraren eraginez, lasai hartu genuen Breithorneko igoera eta, geldialditxo baten ondoren, Breithorn Centralera heldu ginen, bi tontorrek lotzen dituen gandorra zeharkatuz.

Lainoa hara eta hona zebilen, eta tontorretik hainbat pitzadura ikusi genituen. Arriskua ahalik eta gehien murrizteko, jaisteko modurik egokiena eskien gainean baina sokaz lotuta izango zela adierazi genion elkarri.

Jaitsieraren ostean, Pollux tontorraren hegoaldean dagoen elurrezko lautada zeharkatu eta 3100 m-tan kokatuta dagoen Guide d'Ayas aterpera heldu ginen.

2. ETAPA

Goizeko seietan abiatu ginen aterpetik. Ilargi beteak harrera egin zigun eta frontalik gabe ekin genion bigarren egunari. Zerua garbi zegoen eta urrunean Gran Paradisok arrosa kolorea hartu zuen eguzkia jotzen hasi zitzaion momentuan.

Malda tentetu, eskiak bizkarrean jarri eta tipi-tapa Castor tontorrera doan gandor zorrotzean igota ginen, Lyskammek sortzen duten harresi erakargarriari begira. Haize ufada bortitzek ez ziguten bertan denbora askorik egoteko parada utzi, beraz gandorra zeharkatzen jarraitu genuen, Felikhomera bidean.

Elur-kostran ekin genion jaitsierari eta, Quintino Sella aterpean geratu ordez, fokak jantzi eta Lyseko glaziarra zehar-



Felikhornen ertza

katuz ekialderantz jarraitu genuen. Eskiak motxilan jarri eta sokaz lotu ginen Nasora igotzeko. Hemendik aurrera glaziarra zabaldu eta leuntzen da, eta hainbat laumilako xume agertzen zaizkigu. Eguna Piramide Vincent (4100 m) gailurrarekin borobildu ondoren, Gniffeti aterperainoko jaitsiera gozatzeko kapaz izan ginen.

3. ETAPA

Eguna hotz, hodei eta haizetsu esnatu zen eta genuen arropa gehiena jantzita abiatu ginen Alpeetako aterperik altuenera, Cappana Margherita (4554 m). Baldintzek eta altuerak mantso joatera behartu gintuzten.

Hemendik aurrera, ia bi mila metroko desnibela genuen Suitza aldera, kasu honetan, Monte Rosa Hutte modernora, gure

azken geltokia. Jaitsiera hau, luzea izateaz aparte, serac artean sortzen ziren formetan jolasten ibiltzeko zatiak eskaini zizkigun.

Serac artean sortzen ziren formetan jolasten ibiltzeko zatiak eskaini zizkigun

Hurrengo eguneko eguraldi iragarpenak ikusita, zeharkaldiaren punturik gorenena dena Dufourspitze (4634 m) burutik kendu behar izan genuen eta Zermattera arte eskiatzea erabaki genuen.

Grenzgletscherko glaziarra zeharkatu genuen alde guztietara begira gindoazen bitartean, parajeaz txunditurik. Baina oraindik zentzu guztiak piztuta eramatera behartzen gintuen azken pasabidea gelditzen zitzaigun: glaziarraren bukaerak sortzen zuen arroila. Denboraldi bukaera zen eta elur-zubiak jausten hasiak ziren.

Eguna amaitzeko, jaitsiera eroso izan genuen Cervinia-Zermatt eski estazioko pistedatik, berriro teleferikoa hartu eta eguneko azken jaitsiera egiteko, Cervinia aldera.

TRANTSIZIO EGUNAK

Eguraldiaren iragarpena ez zen oso erakargarria hurrengo egunetarako, baina aukera gutxi izaten ditugu urtean zehar Alpeetatik



Lyskammen iparralde

ibiltzeko eta gure planekin jarraitu genuen. Gran Paradiso (4061 m) buruan genuela Valsaveranche haranera abiatu ginen.

Arratsaldea eztabaidatzen eta zetozen egunetarako aukera ezberdinak bilatzen aritu ostean, gau hartan Gran Paradisorantz aterako ginela erabaki genuen. Elur artean eta itxaropen handirik gabe, gaueko hamabietan ekin genion igoerari, baina aurreikusita genuen bezala, aterpean gosalduta eta buelta hartu genuen.

Egun horiek izaten dira gogorrenak espedizio batean. Eguraldia trakestu, planak hankaz gora jarri eta noraezean ibiltzeak motibazioan eragin handia dauka. Dinamika negatiboa sortu aurretik, eguraldiari aukera xumea ematen saiatu eta Grands Montetseko eski pistetara igo ginen. Eguna hautsa artean eskiatzen bukatu genuen, azken orduko leihoa aprobetxatuz.

Motibazioa are gehiago piztu egin zitzaigun hurrengo egunetako iragarpententan leihotxiki bat ikusi genuenean. Egoera birplanteatu eta erabakiak azkar hartu genituen. Hurrengo geltokia Zermatten genuen, hasitako lanak bukatzeko asmoz.

DUFOURSPIITZE 1. EGUNA


Gornergraterako kremailera-trenetik jaitsi ginenean laino itxi eta hezeak hartu gintuen, ikuspena zeharo mugatuz. Behe-lainoa desegin zenean zeru urdin batek harrera gozoa egin zigun eta bidearekin lasaiago jarraitu genuen.

Monte Rosako luxuzko aterpera heltzeko, Grenzglatscher glaziarrera jaitsi eta honen arrakalak zeharkatu behar izaten dira, tokirik egokiena asmatuz. Aurreko eguneko elurteek malda guztiak zuritu eta guri ego kitu zitzaigun bidea zabaltzearen lana.

2. EGUNA

Gure frontalek ematen zuten argi xumeek gidatuta, goizeko hiruetan aterpetik atera eta isiltasunean bideari ekin genion.

Aurreko egunetako aklimatazio egokiak Sattel leporaino (4356 m) erritmo onean heltzen lagundu zigun, bertan eskiak utzi eta mistoan igo beharreko ertza jarraitu



genuen, sokaz lotuta. Hotza nabaria zen, -14 gradu, eta arrokari itsatsitako *verglas* izotzak progresioa moteldu zuten, igoera teknikoagoa bihurtuz.

Arrokari itsatsitako *verglas* izotzak progresioa moteldu zuten

Helduleku eta pauso bakoitzari arreta kendu gabe Dufourspitze mendiaren gailurrean ginen, 4600 m-ko altueran. Haizea bortitza zen eta, heldu ginen moduan, besarkada batekin ospatu eta bidea ahalik eta arinen desegitea egokiena zela erabaki genuen.

Ezustekorik gabe lepora heldu eta, orduan bai, ertzak eragindako tentsioak desagertu ziren eskiak janzten genituen bitartean. Temperatura hotzei esker elurra lehor mantendu zen jaitsieran zehar eta txistu eta kantu artean inoiz egin dugun jaitsierarik gozonenetako bat bizitzeko aukera izan genuen. A ze festa! Harrigarria da nolako denbora gutxian mendiak bere bi aurpegiak erakutsi ahal dizkigun.

Aterpean geldialdi labur bat eginez, jaitsiera ezagunari aurre egin genion, emozioak gainezka baina oraindik ere erreka estutzen zen atalaren elur zubiei arreta berezia jarritz.

Zermattera itzuli eta... bingo! Eguraldi egonkorra hurrengo bi egunetarako! Denboraz justu genbiltzan, baina, zergatik ez saiakera bat egin...?

Dufourspitzeko ertzetik jaisten





Panorama bikaina

MONT BLANC 1. EGUNA

Zermatten esnatu eta eguerdirako jada Grands Mulets aterpetxera bidean ginen. Nekea oso nabaria zen, baina gogoak gailendu eta horrelako aukera askorik izango ez genituelakoan motibazioz gainezka ekin genion azken bultzadari.

La Jonction eremu ezaguneko pitzadurak saihestu eta elur zubiak zeharkatu ostean, Taconnaz eta Bossons glaziarren arteko harkaitzean zintzilik dagoen aterpera heldu ginen. Leku horrek ikuspegi paregabea eskaini zigun, lainoak bailara hartuta baitzuen; elur jauzien orroek uneoro arreta deitzen ziguten bitartean.

Eguzkia hodei-itsasoan hondoratzen zen bitartean, eguneko azken argiek Mont Blanc-eko gaina argitu zuten, ordu gutxiren buruan bere gailurra zapalduko genuelako itxaropenarekin.

2. EGUNA

Aterpea jendez lepo zegoen eta lurtean lo egitea egokitu zitzaigun. Goizeko ordu bata aldera, Bob Marleyren "Don't worry about

a thing, 'cause every little thing gonna be all right!" lelopean esnatu gintuzten. Seinale ona!

Goizeko hirurak aldera, ekipatu eta sokaz lotuta 1800 metroko desnibel positiboan duen igoera luzeari ekin genion. Erritmo onean fokeatzen eta metroak irabazten ari ginen. Beheranzko begirada batek gure atzetik zetorren argi ilara luzea erakusten zigun eta, beherago, Chamonixeko argi distiratsuak.


Grand Plateaun geundela argitzen hasi zen eta hotza sufritzen hasi ginen. Haizea oso gogor jotzen hasi zen Vallot aterpe txikiaren aurretik. Denboraz oso ondo gindoazen eta beharbada goizegi iritsi ginenez, Valloteko kabinan babestu ginen une batez, eguzkiak indarra hartu eta pixka bat berotzeko zain.

Valloteko kabinan babestu ginen une batez

Oraingoan eskirik gabe, kranpoiekin Bossons en ertz politetik gora metroak arin irabazi genituen. Ekialdean, Bionnasay ertza eta Italiar isurialdea ikus genitzakeen. Baita gero eta gertuago sumatzen zen

gailurra ere bai. Pausoz pauso eta arnasa ondo egokituz, ertz gorenera heldu eta pauso gutxien buruan tontorrean ginen.

Urteak generamatzan une honen zain, gauza batengatik edo besteagatik beti atzeratu izan zena... eta hortxe geunden,



azkenean! Mont Blancoko tontorrean. 4804 metrotan. Orduan bai, bostekoa eman eta besarkada estu batean elkartu ginen tontorrean.


Gailurrean denbora luze egon eta gero, Bossonseko ertz zorrotza kontu handiz jaisten hasi eta Valloten eskiak jantzi genituen. Hortik aurrera, gozamina izan zen berriro irristatzea eta metroak erraz galtzea, Mont Blanc eta Mont Maudit mendien iparraldeko seracen azpiko tarte ikaragarrietatik igaroz.

Grand Mulets aterpearen ondotik serac eta pitzaduretatik gertu igaro eta Chamoineraino jaisteko beharrean ginen denbora askorik galdu gabe. Arratsaldea genuen dutxa bat hartu eta bueltako bidai neketuari aurre egiteko. Hurrengo goizean gure eguneroko eginbeharrekoetara buel-

Azken metroak Mont Blancen



Azken begirada aterpetik Mont Blancera



tatu behar ginen, eta seguru ginen gorputzak nola edo hala esfortzu guztia ordainduko zuela. Goizeko bostak, etxera heldu, dutxa bat hartu, gosalduta eta asimilatzeke denborarik gabe, errealitatez aldatu eta lanera abiatzea tokatzen zen.

Baina, esan bezala, egindako esfortzu guztiak merezi izan zuen gure barruan dantzan dabilzan txinpart horiek amatazen joateko, jakinda horiek itzaltzen diren heinean beste handiago batzuk pizten direla. Bidai honek esperientzia oso aberasgarria eskaini zigun, gure abenturetan beste koska bat markatuz. Eta bide batzuen helmugara heltzen garen moduan, beste berri batzuk agertzen doaz, egiten dugun honengatik pasioa bizirik mantenduz eta gure esperientzien hemerroteka momentu ederrez hornituz.

Honengatik guztiagatik, beste behin ere, eskerririk asko!

Mont Blancoko tontorrean!



NEGUKO KLASIKOAK TENA BAILARAN

Alto Gállego bailara edo Tena bailara Pirinioetako bailara zabal eta populatuenetako bat da. Aragoiko Alto Gállego eskualdean kokatuta, Gállego ibaiak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du. Frantziako Ossau bailararekin muga egiten du, Portaletako pasabidearen bidez. Formigal eta Panticosako eski estazioak bertan kokatzen direlako egin da ezaguna eta neguan Aragoiko Pirinioetako bailara jendetsuenetako bat da, bisitari asko jasotzen baititu.



TESTUA ETA ARGAZKIAK



Lorena Arrastua
"Txinbeleta"
(Donostia, 1972)

Aire zabaleko kirolen zalea da, eta mendian galtzeko aitzakia bat aurkitu du beti. Berdin da altuera, tokia edo egindako jarduera, garrantzitsuena esperientziak gozatzea eta ikastea da.

Tendeñera mendilerroa

Hor hasten da erdialdeko Pirinioetako goi-mendia eta Balaitous-Panticosa granito mendigunea da 3000 metroko kotaren lehen gotorlekua. Bertan, altuera hori gainditzen duten gailur ezagun asko daude, hala nola, Balaitous / Vath Laitós, Gran Faisha / Gran Facha, Argualas edo Picos del Infierno, eta hain ezagunak ez

diren beste hainbeste ere aurkituko ditugu; xumeagoak, baina interesgarriak horiek ere bai.

Artikulu honen helburua Tena bailarako aukera erraz samarrak proposatzea da, oinez, erraketekin edo mendiko eskiekin egin daitezkeenak, neguko mendien handitasunaz gozatzeko, horrek dakartzan

arriskuak ahaztu gabe. Hori dela eta, proposatutako ibilbideetan gutxi gorabeherako kilometro kopurua eta desnibela zehazten dira, ordutegiak aipatu gabe; izan ere, ordutegiak igoerak egiteko moduaren arabera aldatuko dira. Kranpoiak eta pioleta beharrezkoak izan daitezke elurraren egoeraren arabera.



PICO ARROYETAS (2556 m) ETA PUNTA ESPELUNCIECHA (2396 m) CULIVILLAS TROKATIK LUZERA: 10 km | DESNIBEL POSITIBOA: 980 m

Anayet taldeko gailur hauek, ibilbide atsegina eskaintzen dute, batez ere elurrarekin eta bereziki, eskiekin. Neguko ibilbide 'klasiko' horietako bat da, eta erraza da norbaitekin topo egitea. Culivillasek, Canal Roya eta Canal de Izas bailarekiko duen kokapen zentrikoari esker, ipar-ekialdeko aurpegi malkartsua saihestuz, hainbat aukera eskaintzen ditu.

Proposatutako ibilbide zirkularrean Arroyetas eta Espelunciecha tontorretara igotzen da Formigaleko Anayet sektoretik. Bi gailurrak Llanos de Anayetetik (2227 m) altxatzen dira eta bista ederrak eskaintzen dituzte: Anayet gailurra (2574 m), Pic du Midi d'Ossau ikusgarria (2884 m) eta bailara osoa. Desnibel handirik gabeko ibilbidea, baina oso gozagarria eta paisaia bikaina duena.

Anayet sektoreko aparkalekutik abiatuta, eski-estazioko pistetatik hasiko dugu gure ibilbidea. Aurrera egin eta berehala Culivillas trokan sartuko gara. Campo de Troya sektorea gure bizkarrean lagata eta Culivillas (2523 m) eta Pico de la Garganta (2145 m) gailurrak alboan, trokak eskaintzen digun mendiko paraje ederrean aurrera egingo dugu Llanos de Anayeten



bila (2227 m). Culivillas trokan zehar elurra aldakorra izaten da, elur askea, zakarra eta izotza tartekatuz.

Anayeteko iboietako lautadaren oinarrian dagoen zirku txikira iristean, hegoalderantz desbideratuko gara Culivillas trokaren adar batetik, Arroyetas tontorraren iparraldeko lerroan doana, Espelunciecha, eguneko bigarren tontorra atzean utzita. Trokaren adar horrek Arroyetas lepoaren aurretik dagoen sorbalda utziko gaitu. Gune laiotzean dagoenez, baliteke kranpoiak eta pioleta erabili behar izatea, goizeko lehen orduetan batez ere izotza egon daiteke.

Behin sorbaldara helduta, Arroyetas leporaino diagonal luze bat egitea baino ez zaigu geratzen. Puntu horretatik aurrera, arrokak partekatzen duen malda gogorretik jarraitu beharko dugu, eta bakoitzaren beldurren arabera eskiak kenduko ditugu. Ertzetik egingo ditugu Arroyetas gailurrera (2556 m) geratzen zaizkigun metroak.

Espelelunciecha eta Pic du Midi d'Ossau lehen sorbaldatik



Bertan, beste aldean, Izas bailara, Pala de Ipeko molea eta Punta Escarra liraina (2751 m) azalduko dira. Ekialde hurbilean, berriz, Culivillas tontorraren piramidea eta ipar-ekialdean, urruti, Argualasko mendigunea eta Piedrafitako zirkuko hiru milakoak. Iparraldean Pic du Midi d'Ossau gailurrak gure begirada erakarriko du eta mendebaldean Anayet mendiaren gailur dotorea hautemango dugu. Bai ederra begi-bistan duguna!

Giro alpetar liluragarria dastatu ondoren, leporaino bueltatuko gara berriro eta Anayeteko iboien zelaigunerantz joko dugu Anayet eta Pic du Midi d'Ossau mendien irudi klasikoa lagun dugula. Lautada horrek ingurunearen edertasuna bete-betean dastatzeko aukera emango digu, baina kontuz ibili beharko dugu lainoa dagoenean, zaila izan daiteke orientatzea. Lautada zeharkatuko dugu Espelunciecha tontorreko norabidean, eta haren hegoaldeko maldatik gora egingo dugu. Gailurrera iristeko, baliteke, elurraren egoeraren arabera azken zatia oinez egin behar izatea; izan ere, gandor harritsua da, eta batzuetan ez dago elur nahikorik eskiekin igotzeko. Elur gogorarekin, komeni da kranpoiak erabiltzea. Gailurretik dagoen paisaia ez da Arroyetas tontorretik ikusitakoaren oso ezberdina, baina beste ikuspegi batetik gozatzeko aukera izango dugu.

Igo garen bide beretik egingo dugu maldan behera. Behin lautadara iristean, Culivillas trokarantz abiatuko gara igoerako bidearekin bat egiteko eta ondoren, eski-pistetara joko dugu abiapuntura bueltatzeko.

SANCHA COLLONS (2697 m) LA SARRA URTEGITIK

LUZERA: 12,69 km | DESNIBEL POSITIBOA: 1262 m

Oraingoan, Musaleseko banalerroaren ekialdean dagoen gailur honetara igoko gara. Gandor berezi batek osatuta, bi gailur nabarmentzen dira: bata Iparraldekoa (2686 m) eta bestea Hegoaldekoa (2697 m). Hauetatik bigarrena da gailur nagusia. Tena bailarako beste klasiko bat da, zailtasun gehiegi gabe panoramika itzelarekin sarituko gaituena.

La Sarra urtegitik abiatu (1430 m) eta Ibonciecho (2225 m) iboirantz doan pistan gora hasiko gara. Behekaldean elur askorik egon ezean, ezkerrera ateratzen den bidezidorra jarrai dezakegu, puntu nagusietan harri-pilekin markatuta dagoena eta pista behin baino gehiagotan mozten duena.

Tena bailarako beste klasiko bat da, zailtasun gehiegi gabe panoramika itzelarekin sarituko gaituena

“Caseta del Ingeniero”-ra iritsi aurretik, eskuinerantz biratu eta ekialderantz igoko gara, pistatik urrunduz, La Cubetilla izeneko bailarara iristeko. Eskuinean Puy Arcoleko buru biko gailurra nabarmentzen da, eta ezkerrean, berriz, Sancha Collons mendiaren gailurrera arte gora egiten duen pala zabala.

Tontorra ekialdetik inguratuz segituko dugu, bailara txiki lasai bat zeharkatuz, begirada aurrean dugun lepoan jarrita. Lepora iritsita, eskiak bertan utziko ditugu, kranpoiak jarri eta pioleta eskuan dugula gailurrera eramango gaituen azken palari ekingo diogu.

Gailurretik dauden ikuspegiak apartak dira. Gugandik gertu ditugu Musales (2653 m), Puy Arcol (2417 m) eta Piedrafitako zirkua. Respomuso urtegia ere gure oinen azpian dago eta inguruan hiru milako sorta bat: Gran Faisha (3005 m), Picos del Infierno eta Garmo Negro (3064 m), egindako esfortzuaren ondoren indarberritzen lagunduko digutenak.

Igotzeko erabilitako bidetik egingo dugu jaitsiera, sentsazioez eta mendiko egun bikainaz gozatuz.



Pixkanaka altuera irabaziz Col de Huer lepora iritsi arte



Bailararen ikuspegia, zailtasun desberdineko hainbat aukera eskaintzen dituena

CANAL ROYA (2348 m) PORTALET MENDATETIK

LUZERA: 11 km | DESNIBEL POSITIBOA: 790 m


Canal Roya eta Malacara tontorrak Malacarako amildegi malkartsuaren ondoan kokatzen dira, iparraldetik Canal Roya bailara ixten. Inguru honetako mendiak osatzen dituzten arroka gorrixkek ematen diote izena bailarari. Hegoaldeko isurialde malkartsuak bere aurpegiarik gogorrena erakusten duen arren, iparraldeko isurialdeak, mendi-bizkar adeitsuagoa erakusten du. Erliebearn sinpletasunari esker, Anéouko lautada zoragarri eta basatia leku ezin hobea da neguko teknikak ikasteko, hastapen-eremu egokia baita. Izan ere, bailara honek zailtasun desberdi-

neko hainbat aukera eskaintzen ditu, hala nola Peña Blanca (2359 m), Pic d'Anéou (2364 m), Pic de la Gradillère (2271 m) edo Pic de Peyreget (2483 m).

Anéouko lautada zoragarri eta basatia leku ezin hobea da neguko teknikak ikasteko

Canal Roya gailurra mendilerro horren erdiko tontorra da eta zirkua mendebaldetik ixten du. Inguruko gailurrik bisitatuenetako bat denez, erraz aurki daiteke aztarna nabarmen bat igotzeko.

Igoera honi hasiera emateko, Portalet mendatera abiatuko gara. Portaleteko muga zeharkatu eta kilometro bat beherago, Anéouko aparkalekuan utziko dugu autoa. Aurretik doazen mendizaleen arrastoari jarraituz emango ditugu lehenengo urratsak Anéou bailaran. Bailararen hondoa gure gaurko helburua begiztatuko dugu; ezkerrean, berriz, Pène de la Glèreren (2308 m) silueta malkartsu eta ikaragarria. Peyreget (2483 m) eta harro altxatzen den Pic du Midi d'Ossau ere begira ditugu; honen siluetak ibilbide osoan zehar liluratuko gaitu.



Aurrera egin ahala, zenbait kubetatik pasako gara, non lehen aipatutako mendi ibilaldi ugari ateratzen diren. Azken kubeta jaitsi ondoren, altuera irabazten hasiko gara. Bailararen hondora gerturatuko gara, puntu horretatik gure eskuinean ateratzen den ibilbide leunetik gora igotzeko. Pixkanaka-pixkanaka altuera irabaziko dugu Col de Houer (2246 m) lepora iritsi arte. Han, ezkerreara egingo dugu Canal Royaren gailurrera heltzeko (2348 m). Leku batzuetan, haizeak harrotutako elurraren forma bitxiak liluratuko gaituzte, baina arreta galdu gabe, ohikoa baita inguru honetan elur gogorra topatzea.

Gailurretik luxuzko panoramika izango dugu: Bisaurin, Acherito, Petrechema, Hiru Erregeen Mahaia eta Ania, Raca eta atzetik Aspe ere agertzen da. Anéouko bailaran Pic du Midi d'Ossau nagusitzen da eta urrutira Palas, Arriel eta Balaitous azaltzen dira. Ia eskura, Anayet dugu eta bere atzean, Arroyetas eta Culivillas.

Hemendik bi aukera ditugu: errazena igoerako bidetik jaistea, eta arreta handiagoa eskatzen duen bigarrena, ertza jarraituz ondoan dagoen Peña Blancaraino heltzea. Guk bigarren aukera hau hautatu dugu. Canal Roya atzean utzi, eta gandorren lehen zatia eskiekin irristatuz zeharkatuko dugu; ondoren, kranpoiak jantziko ditugu erdi-magaletik geratzen den gandor-zatia jarraitzeko, eta airebide labur baten ondoren Peña Blancako gailurrera (2359 m) iristeko. Tontor horretako ikuspegiak apur bat apalagoak dira, baina panorama oso ederra da hortik ere.

Ikuspegi zoragarriaz gozatu ondoren, bailararen hondoraino jaisteko eskiak berriro jartzea besterik ez da geratzen, eta hortik abiapuntura bueltatu.

MONTAÑA DEL VERDE (2295 m)

LUZERA: 13 km | DESNIBEL POSITIBOA: 1225 m

Toponimo horrek Tendenera mendilerroko harresi hantustearen oinean dauden laurreak izendatzen ditu. Panticosako neguko estazioaren instalazioetatik gertu dagoenez, neguko igoera azkarra egin daiteke mendilerro horren iparraldeko isurialdearen ikuspegi ikusgarria eskaintzen duen



Peña Roya, Sabocos, Forato Os Diaples eta Tendenera elurrez estalita dotore ikusten dira

Tendenera mendi-lerroaren iparraldeko ikuspegiak merezi du egindako ahalegina. Peña Roya (2578 m), Sabocos (2757 m), Forato Os Diaples (2715 m) eta Tendenera / Tendenera (2845 m) elurrez estalita dotore ikusten dira. Tontorrean eguzki izpiez eta ikuspegiak gozatu ondoren, Sabocos (2090 m) lepora jaitsiko gara. Jaitsiera laburra eta azkarra da, baina elurraren

egoera eta honek izan ditzazken arriskuak baloratu beharko dira. Batzuetan elurra ezegonkorra izan daiteke eta/edo baliteke plakaren bat ere egotea (batez ere haize handia ibili denean). Mazela ondo finkatua badago, arriskua murrizten da. Lau biratan Sabocos lepora iritsiko gara (2090 m).

Handik Sabocos iboiraino (1900 m) eskiatzen jarraituko dugu eta elurra nahikoa dagoenez, eskiak jarrita, gainetik zeharkatuko dugu iboia. Berriz ere larruak jarri beharko ditugu pixka bat igotzeko eski-estazioko pistekin lotzeko. Panticosako apartakalera itzultzeko pistetatik eskiatzen jaitsiko gara.

muino nabarmen honetara. Baina beti ez dauka behar den elur kopurua eskiekin igotzeko eta proposatzen den igoera egiteko elurte on bat aprobetxatu beharko da.

Panticosako eski estaziotik abiatuko gara (1136 m), gaur itxura erabat alpinoa duena. Hasieran, eskiak motxilan eramango ditugu eta telekabinaren atzetik ateratzen den bidezidorra hartuko dugu, Bolática ibaiaren eskuineko ertz orografikoan gora doana. 1 kilometro pare bat egin ondoren, zubi txiki batetik ibaia zeharkatuko dugu eta gero eskiak jarriko ditugu.

Bidexkak basoan gora jarraitzen du. Behin basoa atzean utzita Ripera bidea hartuko dugu, elurrez estalitako larre-eremu ireki batera atera arte. Berehala, Ripera bailara aldera doan bide zidorraren trazadura utzi eta eskuinera joko dugu. Montaña del Verdeko iparraldeko magalerantz, eguzkia ateratzen ari den bitartean abiatuko gara; gero, terrazadun bankal-eremu batetik igoko gara. Gure atzean Picos de Piniecho (2566 m) daude.

Montaña del Verdeko iparraldeko magaletik ekialderantz sigi-saga eginez igoko gara. Faceras trokaren barrualdea ikusiko dugu eta elurrez estalia forma bereziak eskaintzen dizkigu. 1900 kotaren inguruan ibarbide batera iritsiko gara, Faceras eta Verde mendien artean esekitako bailara moduko batera. Panticosa oso behean dago. Atzekaldean, Pico de las Escuellas (2507 m) ikusten da.

Normalean, bailara txikiaren hondotik igotzen da, baina eskuinera biratzen duen aztarna jarraituko dugu, eta malda gogorretik igoko gara Montaña del Verde (2295 m) gailurraren bila.

Pixkanaka-pixkanaka altuera irabaziko dugu Col de Huer lepora iritsi arte



PIOLET ETA KRANPOIAK

MOTAK ETA ERABILERA

Negu giroan mendian egiten diren ekintzetan piolet eta kranpoien erabilera ezinbestekoa da. Erabilera hori ez da berria, izan ere, kranpoiei egindako lehen erreferentzia II. mendekoa da. Artikulu honetan, piolet eta kranpoi mota ezberdinak ezagutzeaz gain, neguko ekintza ezberdinetara hobekien egokitzen den piolet edo kranpoiak aukeratu ahal izateko informazioa izango duzu.



PIOLETAREN ATALAK

1. **BURUA:** pioletaren goiko zatia da, metalezkoa, pioletaren kirtenarekin gurutze bat osatuz elkartzen dena. Buruak era berean bi zati ditu:
 - 1.1. **XAFLA:** buruaren aurreko zatia da eta hortzak izaten ditu. "B" eta "T" motatakoak izan daitezke. "B" motako xaflak "bigun" eta finagoak direnez, izotzerako egokiak dira. "T" motako xaflak aldiz, "gogor" eta sendoagoak dira eta izotz-eskalada ez den beste aktibitatearako aproposak izango dira.
 - 1.2. **PALA EDO MAILUA:** buruaren atzeko zatia da. Pala, eskailera-mailak egiteko edota eroriko bat gelditu ahal izateko erabiliko dugu. Mailua, aldiz, batez ere iltzeak sartzeko.
2. **KIRTENA:** pioletaren heldulekua da eta gomazko babesgarria izaten du, bi funtzio dituena: batetik pioleta eskuetatik irrist ez egitea eta bestetik pioleta termikoki isolatzea.
3. **PUNTA EDO "TXURROA" (GAZTELANIAZ "REGATÓN"):** kirtenaren muturrean dagoen puntari deitzen zaio eta pioleta bastoi bezala erabiltzerakoan laguntza handikoa da.
4. **DRAGONERA:** kirtenetik atera eta eskumuturrean lotzen den segurtasun zinta. Dragonerarik erabiltzen ez denean pioletak bi zinta elastikoekin arnesera lotuak eramaten dira. Zinta elastiko hauen funtzio nagusia pioletak ez galtzea eta momentu jakin batean eskalatzailea eustea da.

PIOLET MOTAK

1. **OINARRIZKOAK:** kirtenean "B" ("basic") bat izaten dute zir-kulu baten barruan. Oinarrizko pioletak glaziar edo malda txikiko lekuetan euskarri moduan edo ibileran laguntzeko diseinatuak daude. Orokorrean, kirtena zuzena, helduleku sinplea edo heldulekurik ez, xafla zuzen eta aldazkina eta luzera ezberdinekoak izaten dira.



2. **TEKNIKOAK:** kirtenean "T" ("technical") bat izaten dute zir-kulu baten barruan. Piolet hauek izotz eskalada eta alpinismorako diseinatuak daude. Orokorrean, kirtena okerra, helduleku ergonomikoa, aldatu daitezken xafla oker eta horzdunak eta 50 cm inguruko luzera izaten dute.
3. **PIOLET "MISTOAK".** Etxe komertzialek "asmatutako" hirugarren mota bat da. Piolet hauek itxura eta luzera klasikoa baina kirtena okerra dute. Oinarrizko pioleten erabileraz gain, 45° - 55° gradu arteko maldetaraino erabiltzeko diseinatuak daude.



OINARRIZKOA



TEKNIKOA



MISTOA

KRANPOIAK EROSTERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

1. PUNTA KOPURUA.

- **6-8 PUNTA:** malda eta arriskurik gabeko ibilbideetarako eta noizbehinka elurtegi bat zeharkatu behar bada. Kranpoi "ultra teknikoek" ere kopuru hau izaten dute.
- **10 PUNTA:** txiki edo teknikoak ez diren maldetarako.
- **11 PUNTA:** kranpoi hauek hamar punta dituzte eta aurrealdean punta bakarra. Izotz-eskalada tekniko, eskalada misto eta *dry-tooling*-erako erabiltzen dira, harkaitzen arteko pitzadura txikietan aurreko punta sartzeko aukera ematen baitute.
- **12 PUNTA:** malda handi edo teknikoetarako, alpinismorako edo izotz-eskaladarako. Bi punta izaten dituzte aurrealdean.

2. AURREKO PUNTAK.

- **KOPURUA:** punta bat edo bi izango dituzte. Goian azaldu da bat edo besteren erabilera.
- **OKERDURA:** bertikalak diren lekuetarako ia horizontalak izango dira. Malda txikiagoa den neurrian, aldiz, okerdura handiagotzen joango da.
- **LUZERA:** botatik 2-3 zentimetro irtetea gomendatzen da. Izotz gogorrean aurreko puntak motzagoak badira, kranpoiak sartzetarakoan hormatik gertuago mantenduko gaituzte, gure segurtasun eta hanketako bikien mesederako.
- **MOTAK:**
 - **ZAPALAK:** punta hauek horizontalak direnez, malda gutxi lekuetan hobe eusten dute, batez ere elur gogorrik ez badago.
 - **BERTIKALAK:** pioletaren xaflaren itxura dute.
 - **"T" MOTAKO PUNTAK:** punta zapal eta bertikalen arteko nahasketa. Puntak zerra itxura dauka baina kranpoia-
ren armazoiria hurbildu ahala zapal itxura hartzen du.



PUNTA ZAPALAK



PUNTA BERTIKALAK



"T" MOTAKO PUNTAK

KRANPOI MALGUAK



KRANPOI ZURRUNAK



MINIKRANPOIAK



3. **GAINONTZEKO PUNTAK.** Aurrealdeko punten atzean dauden puntak aurrera zuzenduak egon daitezke, punta hauek izaten direlako malda batean aurreko puntei egonkortasuna ematen dietena. Kranpoiaren orpoan dauden puntak jaitsieratan garrantzitsuenak dira, horregatik haien orientazioa zein den ongi begiratu beharko dugu.

4. **KRANPOIEN ARMAZOIA. MOTAK:**

- **MALGUAK EDO ARTIKULATUAK:** barra metaliko batek lotzen dituen bi piezaz osatuak daude. Barra metalikoak kranpoia mendiko boten luzera ezberdinetara egokitzea errazteaz gain, kranpoiari malgutasuna ematen dio ibilera erraztuz eta kranpoiaren azpian elurra pilotzea zailduz.
- **KRANPOI ZURRUN EDO KAXA ITXURAKOAK:** pieza bakarrekoak (tamaina ezberdinetara egokitzeko sistema dute) eta zurrunak dira, ibilera zailduz. Izotz-eskalada bertikalean soilik aritzen diren eskalatzailen aukera nagusia izaten da, hanketako bikiak hainbeste nekatzen ez direlako.
- **MINIKRANPOIAK:** oinarritzko kranpoi txiki batzuk dira (2 cm inguruko puntak izaten dituzte) eta jartzeko duten sistemagatik edozein zapatila edo bota bigunetara egokitu daitezke.

5. **KRANPOIAK LOTZEKO SISTEMA.**

- **UHAL SISTEMA BIDEZ LOTZEN DIREN KRANPOIAK:** mendiko edozein botekin erabil daitezken arren, jarri eta kentzeko ez dira oso erosoak eta erraz aska daitezke, horregatik noizik behin estutzen joan behar dira.
- **KRANPOI ERDIAUTOMATIKOAK (EDO C2 MOTAKO KRANPOIAK):** balioaniztunak dira, jartzeko errazak, bota zurrun edo erdizurrunetara ederki egokitzen direnak. Botak koska bat izan behar du orpoan.
- **KRANPOI AUTOMATIKOAK (EDO C3 MOTAKO KRANPOIAK):** kranpoiak lotzeko sistemarik sendo, eroso eta azkarrena da. Botak koska bana izan behar du orpoan eta puntan.

UHAL SISTEMA BIDEZ LOTZEN DIREN KRANPOIAK



KRANPOI ERDIAUTOMATIKOAK



KRANPOI AUTOMATIKOAK



-
6. **ANTIBOOT SISTEMA.** *Antiboot*, ABS edo *antisnow* sistema kranpoiaren zoruan doan latex edo plastikozko piezaz osatutako sistema bat da eta bere helburua kranpoiaren azpian elurra ez pilatzea da. Sistema hori izatea ezinbestekoa da erabileraren gehienetan.



7. **KRANPOIAREN ARMAZIOA ETA PUNTAK EGINDAKO MATERIAL MOTA:**

- **ALTZAIRUA:** material iraunkor eta sendoena da. Altzairuak duen berezitasun nagusia apurtu aurretik okertu egiten dela da. Desabantailarik handiena: pisua eta herdoiltzeko arriskua.
- **ALUMINIOA:** aluminioa edo horren deribatuak (zicral edo duraluminioa) altzairua baino arinagoak dira, baina ez dira altzairua bezain gogorrak eta okertu aurretik apurtu egiten dira.

PIOLET ETA KRANPOIEN AUKERAKETA ERABILERAREN ARABERA

1. **GLAZIARRETAN ZEHARKALDIK EDOTA IGOERA ERRAZAK EGITEKO:** piolet klasikoetara joko dugu ("B" motakoak). Aurreko puntak zapalak dituzten 10 edo 12 puntatako aluminiozko kranpoiak erabiltzea izango da aukerarik onena. Lotzeko sistema uhalen bidez egiten dena aukeratuko dugu (hemen erabiltzen ditugun botak, gehienetan, bigunak dira).
2. **MENDIKO ESKIA:** arintasunak lehentasuna duenez, pioletak "B" motakoak izaten dira, oso arinak eta 50 cm ingurukoak. Malda handietan euskarri bezala, ustezko erorketa bat gelditzeko edota norbera aseguratuzko erabiliko dira batez ere. Aluminiozko kranpoietara joko dugu, 10 puntakoak eta aurreko puntak zapalak direnak. Lotzeko sistema edozein izan daiteke, baina kirol honetan azkartasunak ere garrantzia duenez, erdiautomatikoak edo automatikoak badira, hobe.
3. **KORRIDORE EDO KANAL ERRAZAK, BERTIKALAK JARTZEN EZ DIRENAK (45° ÷ 55°):** piolet mistoak egokienak izan daitezke, aldapa gutxi lekuetan euskarri moduan eta irtenguneetan, beraien kirten okerra aprobetxatuz, trakzioa eginez igotzeko aukera emango digutelako. 12 puntetako altzairuzko kranpoiak aukeratuko ditugu, aurreko puntak zapalak edo "T" motakoak eta, ahal dela, erdiautomatiko edo automatikoak (hemen erabiliko ditugun botak ere erdizurrun edo zurrunak izango dira).

4. **TEKNIKOKI ZAILAK IZAN DAITEZKEN KORRIDORE ETA KANALAK EDO ZAILTASUN GUTXIKO IZOTZ-ESKALADA:** pioletik egokienak "T" motakoak dira, 50 ÷ 55 cm ingurukoak eta, kontuan izanda izotzetan ez dugula asko eskalatuko, xafla "T" motakoa izatea komeni da. Aurreko puntak bertikalak edo "T" itxurakoak dituzten 12 puntetako altzairuzko kranpoi erdiautomatiko edo automatikoak aukeratuko ditugu.
5. **IZOTZ ESKALADA TEKNIKOAK:** pioleten xaflak "B" motakoak izan beharko dira. Izotz-eskaladarako erabiltzen diren pioletek heldulekua ezproi itxurakoa dute, eskuak irristez egin eta izotzari ematen zaion kolpean indar handiagoa egiteko. Aurreko puntak bertikalak dituzten altzairuzko kranpoi automatikoak edo kranpoi zurrun edo kaxa itxurakoak dira gomendagarrienak, 12 edo 11 puntekin.
6. **DRY-TOOLING:** izotz eskaladako tresna eta teknikak erabiltz harkaitz-hormak eskalatzeko teknika da, tarteka izotza ere topatu daitekeen arren. *Dry-tooling*-erako oso teknikoak diren pioletak erabiltzen dira, orokorrean kirtena erabat okerra dutenak. Harkaitzean batez ere erabiltzen direnez, xaflak "T" motakoak izango ditu. Aurreko puntak bertikalak dituzten altzairuzko kranpoi automatiko edo botekin batera datozen kranpoi teknikoak aukeratuko ditugu, gehienetan 11 puntakoak (8 edo 9 puntakoak ere izan daitezke).



EUSKAL MENDIZALETASUNAREN XXVI. GALA

XXVI GALA DEL MONTAÑISMO VASCO



Saritu guztiak

El 14 de octubre de 2022 se celebró en Altsasu la XXVI GALA DEL MONTAÑISMO VASCO, organizada conjuntamente por Euskal Mendizale Federazioa y la Federación Navarra de Deportes de Montaña y Escalada, en colaboración con los clubes Dantzaleku Sakana y Altsasuko Mendigoizaleak.

El acto estuvo presentado por Leyre Mateos y Aitziber Grados. Tras la bienvenida del alcalde de Altsasu, Javier Olló, intervinieron Zigor Egia (presidente de EMF), Martín Montañés (presidente de la Federación Navarra de Deportes de Montaña y Escalada) e Iván Ruiz (director de Pyrenaica).

Además de la entrega de los premios de Euskal Mendizale Federazioa y de la revista Pyrenaica, se rindieron sendos homenajes a Jesús María Garisoain Goñi "Txumarra" (responsable de la sección de montaña de Anaitasuna fallecido en 2022), Axio Aranburu (alpinista de Altsasu fallecido en 2016) y Joxemi Larrea (montañero y bombero jubilado).


La gala estuvo amenizada por la coral Erkudengo Ama, el grupo de teatro Tarima Beltza y la escuela de danza Irantzu.

Txumarrari gorazarrea



